

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

AGURAINGO UDALA

Zaborren tasaren 2019ko laugarren hiruhilekoko errolda

2019ko laugarren hiruhilekoko zaborren tasaren errolda jendaurrean dago, hamabost egun baliodunetz, ediktu hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera, interesdunek aukera izan dezaten aztertu eta egoki jotzen dituzten erreklamazioak edo iradokizunak aurkezteko.

Alegaziorik aurkezten ez bada zaborren tasaren erroldaren aurka jendaurreko 15 egun baliodunetan, ordaintzeko epea hasiko da.

2019ko abenduaren 31tik 2020ko otsailaren 29ra bitarteko egun baliodunetan (biak barne) ordaindu ahal izango dira, borondatezko epean, zaborra biltzeko zerbitzuaren 2019ko laugarren hiruhilekoko ordainagiriak.

Zerga horren eraginpeko zergadunek udalaren diruzaintzan egin ahal izango dute ordainketa, adierazitako epean, 10:00etatik 14:00etara.

Era berean, zergadunei gogorazten zaie ordainketa banku edo aurrezki kutxetan helbideratu ahal dutela.

Epe hori igarotakoan, premiamenduko betearazte bide administratiboa abiaraziko da, hala xedatzen baitu indarrean dagoen Zergabilketa Arautegi Orokorrak, eta ehuneko bosteko erre-karguarekin kobratuko dira ordaindu gabeko kuotak; erre-kargu hori bateragarria da luzapen erre-karguarekin.

Dagozkion ondorioak izan ditzan jakinarazten da.

Agurain, 2019ko azaroaren 27a

Alkatea

ERNESTO SAINZ LANCHARES